

FISIOTERAPEUTA

Fisioterapeutek honako zereginak beteko dituzte:

- 1.- Ebaluazio psikopedagogikoa egiterakoan TMri laguntzea; horretarako, mugitzeko eskasiatik etorritako hezkuntza-premia bereziak (h.p.b.) dituzten ikasleek mugimendua garatzeko duten maila baloratuko da.
 - 2.- Bere lanarekin lotutako gaitan, curriculuma nola egokitu eta curriculumera sartzeko zein egokitzapen egin jakiteko aholkua ematea.
 - 3.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen mugimendua garatzea errazten duen programa egiten parte hartzea, curriculumaren egokitzapenen edota curriculumera sartzeko egokitzapenen esparruan.
 - 4.- Mugitzeko eskasiatik etorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen funtzio-gaitasunen garapen handiena lortu nahi duen programa gauzatzen parte hartzea, curriculumaren esparruan eta lan-taldearen programa orokor baten zati gisa.
 - 5.- Irakasle, TM, okupazio-terapeuta, logopeda, laguntzaile, errehabilitazioko mediku, eta mugitzeko urritasunetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretan edota hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten profesional guztiekin koordinazioan jardutea, hasierako balorazioa egin, hezkuntza-erantzuna antolatu eta behar diren jarraipena eta ebaluazioak gauzatzeko.
 - 6.- Mugitzeko eskasiatik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten familiei eta gainontzeko profesionalei aholku eman eta orientatzea, bere lanarekin lotutako gaiei buruz.
 - 7.- Urteko plangintza eta memoria egitea, baita ikertutako ikasleen txostenak ere.
 - 8.- Bere jarduerarekin lotutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Funtzio hauek laguntzen zaien ikasleekin zerikusia duten gainontzeko profesionalekin koordinatuz garatuko dira.